



# Natura 2000, etorkizunerako erronka

Garazi Andonegi Beristain

Elhuyar

**h**abitat izenez ezagutzen den 1992ko 92/43/EEE arteztaraua, habitat naturalen, faunaren eta floraren kontserbaziorako sortutako legedia da. Arteztarau hori eta Hegaztien 79/409/EEE arteztaraua dira naturaren kontserbaziorako Europako politikaren oinarria.

## Zer da Natura 2000 sarea?

Natura 2000 sareak Europako naturagune adierazgarrien sarea izan nahi du, horrela, naturagune horiek pairatzen ari diren degradazioari aurre egiteko. Sare horren eraketa estatuentzat erronka berri bat da, ingurumen-kalitatearen eta biodibertsitatearen inguruko Europako helburu orokorrak betetzea eskatzen baitu.

Natura 2000 sareak bi arlo izango ditu: hegaztien babesgune bereziak eta babes bereziko eremuak. Lehenak jada-

nik izendatuak daude, eta bigarrenak dira Natura 2000 sarearen eskutik hurrengo urteetan izendatu beharrekoak.

Horretarako, 8 eskualde klimatikotan banatu da Europa: mediterranea, atlantikoa, Europako erdialdekoa, alpinoa, boreala, panonikoa, estepikoa eta makaronesikoa (Atlantikoko uharteak). Eskualde klimatiko horiek Europako Batasuneko herrialde guztiak hartzen dituzte kontuan, baita hemendik gutxira onartuak izango direnak ere. Euskal Herriaren kasuan, hiru eskualde klimatiko daude; atlantikoa, mediterranea eta alpinoa.

Leioako Botanika Saileko ikertzaileek besteak beste gune atlantikoan dauden hainbat habitat ikertzen dihardute. Javier Loidiren taldeak 10 urte darमतza Habitat arteztarauaren baitan proposatu beharreko guneak aztertzen. Lan horretan, lehenik eta behin, metodo fitosozilogikoak erabilita, babestu beharreko habitata identifikatzen dute. Ondoren, bertan dauden espezieak tipifikatu, inbentariatu eta habitaten kalitatea balioesten da. Azkenik, guztia kartografiatu egiten da, hau da, mapa batean islatzen da.

Proposa daitezkeen babesguneen kopuruari dagokionez, ez dago zenbakizko mugarik. Gaur egun, 12.000 dira

Europar zehar babesteko proposatutako guneak eta 13.000ra handitzeko asmoa dago. Horiek guztiek Europako lurren % 20 osatzen dute. Euskal Herriaren kasuan, berriz, 1997ko Eusko Jaurlaritzaren akordio baten bitartez, 25 gune aukeratu ziren Natura 2000 sarean sartzeko. Guztiek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurren % 12 hartzen dute.

## Natura 2000 sarearen gabeziak

Euskal Herriaren kasuan, lehendik babestuta zeuden hainbat ingurunez gain, gutxi omen dira sarea osatzeko proposamen berriak. Javierren ustez, gainera, zenbait gune proposatzeko gelditu dira, horien artean Areatzako hondartza eta kostaldeko hainbat zati, adibidez. Ildo horretatik, Javierrek ikusten du beste gabeziarik ere Natura 2000 sarean: bata korridore ekologikoen gabezia, hau da, espezieak alde batetik bestera mugitzeko bideen gabezia, eta bestetik, gune babestuetatik at edozer egin daitekeela uste izatea.

Natura 2000rako proposatutako guneen zerrenda eta informazio osatua [www.nekanet.net](http://www.nekanet.net) web gunean aurki daitezke.



Euskal Herrian, Europako Batasunarentzat interesgarri diren hainbat landarezein animalia-espezie daude. Guztietan, argazkiko *Rosalia alpina* da lehentasuna duen bakarra.

ARTXIBORQA

### Proiektuaren izenburua

Espainiako habitat natural eta erdinaturalen atlasa.

### Helburua

Habitat natural eta erdinatural guztien 1:50.000 eskalako kartografia egitea nazioarteko tipologia batean finkatutako landaredia-unitateen arabera.

### Zuzendaria

Javier Loidi.

### Lan-taldea

Itziar Garcia Mijangos, Mercedes Herrera, Juan Antonio Campos, Ainhoa Darquistade, Juan Carlos Báscones.

### Saila

Landareen biologia eta ekologia.

### Fakultatea

Zientzia Fakultatea.